

Tributu arloko zenbait aldaketa onartzen dituen uztailaren 20ko 5/2016 Foru-Araua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren neurriak nabarmenak		
Salbuespenak	Familia-prestazioak	Salbuetsizat jotzen dira minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzeko Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginean arautzen diren familia-prestazioak
	Bekak	Batetik, banku-fundazioek Espainian nahiz atzerrian —hezkuntza-sistemaren maila eta gradu guztietan— ikasketa arautuak egiteko emandako bekentzat zein fundazio horiexek, 2006ko urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuaren esparruan, ikerketarako ematen dituztenentzat (errege-dekretu horrek ikertzaile bekadunaren Estatutua onartzen du); bestetik, erakunde horiek administrazio publikoetako funtzionarioei eta gainerako langileei nahiz unibertsitateetako irakasle eta ikertzaileei ikerketak egiteko emandako bekentzat.
	Ordainketa bakarreko langabezia-prestazioa	EZ da beharrezkoa izango akzioari edo partaidetzari edota jarduera ekonomikoari bost urtez eustea , baldin eta epe hori ezin bada bete enpresa edo jarduera ekonomikoa likidatu egin delako konkurtso-prozedura baten ondorioz. Gainera, salbuespen horren barruan sartuko dira kooperatiba deseginetako bazkide-langileei eta lan-bazkideei behin betiko birkokapenagatik aitortutako enplegurako laguntza ekonomikoak.
	Epe luzerako aurrezki-plana	Salbuetsita uzten dira aurrezki hori instrumentatzeko erabiltzen den gordailu-kontuak edo bizi-aseguruak sortutako errentak, baldin eta planean 5.000 euro baino gutxiago jartzen badira urtean eta bost urteko epean gutxienez.
	Konkurtso-prozeduretan lortutako errentak	Zordunak konkurtso-prozeduretan lortutako errentak-salbuespenak egongo dira, baldin eta zorrak ez badira jarduera ekonomikoak egitearen ondorioz sortuak..
Jarduera ekonomikoen etekinak	Nekazaritzako, abeltzaintzako, basogintzako eta baxurako arrantzako jardueren etekin garbia	Zuzeneko zenbatespen erraztuaren araubidea aplikatzeko ez da muga izango 600.000 eurotik gorako eragiketa bolumena izatea
Kapital Higiezinaren etekina	Etxebizitzaren azpierretoa	Doikuntzak gastu kengarrietan egiten dira.
kapital higarriaren etekina	Ekarpenen itzulketa dakarten kapital-murrizketek zein partaidetzen jaulkipen-primaren banaketak	Antzeko tributazioa izan dezate, batetik, partaidetak eduki diren denboran zehar erakundeek sortutako erreserbei prima horietan dagokien zatiak, eta, bestetik, erreserba horiek zuzenean banatzeak..
	Kapital propioak lagatzea ordezkatzan duten aktiboak dohaintzan ematea	Ez dela konputatuko hirugarren batzuei kapital propioak lagatzea ordezkatzan duten aktiboak dohaintzan emateagatik sor litezkeen etekin garbi negatiboak, orain arte inter vivos egintzengatik edo eskuzabaltasunengatik kostu gabe egindako eskualdaketetatik datozen ondare-galerekin egin den bezala.

Tributu arloko zenbait aldaketa onartzen dituen uztailaren 20ko 5/2016 Foru-Araua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren neurriak nabarmenak		
Ondare-irabazi eta -galerak	65 urtetik gorako pertsonen biziarteko errenta aseguratua	Pizgarri fiskala ematen da, eta, horrenbestez, ez da konputatuko edozein ondare-elementu eskualdatuz lortutako ondare-irabazia, baldin eta eskualdaketa lortutako zenbatekoa horrelako errenta bat eratzeko erabiltzen bada.
Nazioarteko gardentasun fiskalaren araubidean errentak egozte	Indartu egin dira araubide hori eta pertsona juridikoen tributazioari dagokionez ezartzen dena modu koordinatuan aplikatzeko baldintzak, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak egindako azken lanekin bat. Denbora-egozpenari dagokionez, zehaztu egiten da edozein diru-laguntza publiko lortzearen ondoriozko ondare-irabazientzako zein mugaeguneratu baina kobratu gabeko kredituen ondoriozko ondare-galerentzako zegoen irizpidea, eta irizpide hori iragankorra izango dela ezartzen da.	
Gizarte-aurreikuspena	BGAE,PP etabad	Berariaz jasotzen da hurrengo bost ekitaldietan murrizketa egin ahal izango dela zergadunaren gizarte-aurreikuspeneko sistemetara ekarri edo egotzitako diru-kopuruak direla-eta, baldin eta murrizketa ezin izan bada zerga-oinarri orokorrean egin, zerga-oinarri hori nahikoa ez delako.
	Aurrezki sistematorako banakako plana	Hamar urtetik bost urtera gutxituko da lehenengo primaren eta biziarteko errenta eratzen den unearen artean gutxienez igaro beharreko epea. Horretarako, aldaketak egin behar izan dira halako aurreikuspen-produktuak arautzen dituzten xedapen gehigarri bietan eta xedapen iragankor berri bat ere gehitu behar izan da.
	Bizitzaren aseguroak	Konpentsazio fiskala aplikatzeko aukera kenduko da 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen kontratatu ziren bizitzako edo baliaezintasuneko banakako kontratuetan.
Betebehar formalak	Atxikipena egiteko betebeharrari eta betebehar formalak betetzeari dagokionez, aurreko arauketa egokitu egiten zaio Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak C-678/11 gaian 2014ko abenduaren 11n emandako epaiari. Izan ere, auzitegiak adierazi zuen Europako araudiaren kontrakoa zela honako hauek, ondorio fiskaletarako, ordezkari bat izendatu beharra Espainian: Espainiako lurraldean Espainiako legeriaren mende dauden enpleguko pentsio-planak aurrera daramatzaten Europar Batasuneko beste estatu batean helbideratutako pentsio-funtsek, batetik, eta Espainian zerbitzuak emateko askatasunez diharduten Europako esparru ekonomikoko beste estatu kide batean helbideratutako aseguru-erakundeek, bestetik. Gainera, informazioa emateko betebehar berriak ezartzen dira sortzen diren aurreikuspen-produktu berrientzat.	
Merkataritzako xedea duten sozietate zibilak	Kontuan hartu arren Bizkaiko araudiak ez duela aldatzen merkataritzako xedea duten sozietate zibilen tributatu-tratamendua eta, beraz, haien errentek berdin jarraitzen dutela errentak eratxikitze araubidearen pean, ezin da saihestu Bizkaiko zergadunetako batzuk —pertsona fisikoak edo juridikoak— Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen pean dauden sozietate zibiletako bazkideak izan daitezkeela. Horrenbestez, foru arau honek zehaztuko du zergadun horiek zer tributazio-araubide aplikatu beharko duten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, eta errentak eratxikitze araubidea aplikatuzetik salbuetsiko ditu; aldi berean, tributatu-tratamendu berezia ezarriko du halako zergadunek sozietate zibilak lortutako errenta positiboa egozteko, eta tratamendu horrek berariazko mekanismoak izango ditu zergadunok izan lezaketen zergapetze bikoitza saihesteko.	